



HKEE-REN PRENTSA OHARRA, ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN KONTU OROKORRAREN 2004-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Arabako Foru Aldundiaren eta bere administrazio instituzionalaren 2004ko ekitaldiaren ekonomia-finantza jardueraren gaineko fiskalizazio lana mamitu du. Txostena aho batez onetsi dute HKEEren Osokoaren kideek.

HKEEk egindako fiskalizazioak legezko eta kontularitzako alderdiak eta finantza egoeraren analisisa barne hartzen ditu.

Erakunde fiskalizatzaileak aldeko iritzia eman du Arabako Foru Aldundiak 2004ko ekitaldian legezotasuna betetzeari dagokionez, baina iritzi orokor honekiko hainbat salbuespen azaldu ditu.

Aurrekontuaren kudeaketaren barruan, erakunde fiskalizatzaileak azpimarratu du arautegia urratzea dela 2004ko Aurrekontua Exekutatzeko Foru-Arau Proiektua erretiratu eta gerora ez aurkeztea. Halaber, aurrekontuaren luzapenean 3 milioi euroko kontu-sailak oker barne hartu direla adierazi da.

Langileriaren atalean adierazi da AFAk bertako langileen bizitza eta elbarritasun aseguruaren kontzeptuan ordaintzen dituen zenbatekoak ez dituela NUIZ ondorioetarako aitorten fiskaletan barne hartzen, gauzako ordainsaritzat hartu behar liratekeenak. Berebat, ez ditu barne hartzen goi karguei 12.000 euroan ordaindutako utziliartzak ere.

Kontratazio administratiboari dagokionez, txostenak derrigorrezko diru-bilketa agentzia zerbitzua betetzeko kontratuaren egoera salatu du beste behin, berriz 2004an luzatu dena, zerbitzua lehiaketa publikora ateratzea ekidinez, kontratu mota honetarako legez finkatutako epeak gaindituak direnean. Gainera, 693.000 euro egin dituen telefonia finkoaren kontratazioak ere ez dituela publizitate eta lehia printzipioak gorde iritzi zaio.

AFAk aurkeztutako kontuei dagokienez, Kontuen Epaitegiak aldeko iritzia eman du, egoeraren balantzearen saldoetan doiketaren bat egin duelarik.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Erakundeen administrazioari, Erakunde Autonomoei eta Foru Sozietate Publikoei dagokienez, HKEEk iritzi positiboa azaldu du Erakunde autonomoek legea betetzeari eta kontuak aurkezteari dagokionez, inongo salbuespenik egin gabe.

Sozietateei dagokienez, legea betetzeari buruzko iritzia aldekoa da, baina izan dira hainbat akats, hala nola, aurrekontuetan hurrengo ekitaldietarako hartutako konpromisoak ez barne hartu izana eta langileen kontratazioari buruzko zenbait, eta ondasun eta zerbitzuak erosteko zenbait kontraturekin lotutako beste batzuk, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak gorde gabe izapidetu direlako.

Sozietate Publikoen kontuen gaineko iritzia ere aldekoa da; badira, ordea, hainbat akats HKEEren iritziaren arabera, Kontu Orokorrak ez ditu Laudioko Elkartegia S.A. eta Asparreneko Elkartegia, S.A. sozietateak barne hartu, zeinetan AFAREN partaidetza gehiengoa den zeharka Araba Garapen Agentzia, SAREN bitartez.